

# IKASTLEEN

8. zenbakia

2004ko azaroaren 4a

URUMEA IKASTOLA

## Obrak gazteen iritzian

Iñigo, Ander, Asier eta Cristian  
URUMEA IKASTOLA

KALETIK joanda erraz antzema-  
ten da, Hernani obrak josita du-  
gula. Guk, Urumea ikastolako  
gazteek, gai horren azterketa  
sakonagoa egitea erabaki dugu  
eta zein azterketa hoberik gazte-  
en iritzia ezagutzea baino. Her-  
nanin DBHko 3-4 mailako gela  
guztietan egin dugu galdeketa,  
Urumea, Elizatxo, Langile eta  
Inmaculada ikastetxeetan, eta  
guztira 200dik gora gazteren  
erantzunak lortu ditugu.

Datuak argiak dira, eta behe-  
ko grafikoan argi ikusten dena  
sakontasunez adieraziko dugu  
hurrengo lerro hauetan.

Gure galderak zuzenak izan  
dira eta hori lagungarri izan da  
hausnarketa hau egin ahal izate-  
ko. Orokorrean, gazteak ados  
daude herriko obrekin, baina  
ezagutzen ez dituztenak asko  
dira. Alegia, herritarrek ez dute  
egingo dituzten obrei buruzko in-  
formaziorik edo behintzat gutxi.

### Gure hausnarketa

Sabaigabeko piszinaren eta  
Skate-Parkaren eraikuntza proie-  
ktua ondo hartu dituzte gazte-  
ek. Atsegindegiko parkinaren  
privatizazioaren proiektua berriz  
ez dute hain ondo hartu eta ez  
daude erabat ados. Eraikiko di-  
tuzten etxeak ere ez zaizkie  
gaizki iruditzen, baina argi dago  
aurreko bi proiektuen aldeko jar-  
rera azpimarragarriagoa dela.



Balantzan egiten ari diren etxebizitzak.

Aztergai dugu baita ere, Zin-  
ko-Enean egin nahi den proiektu  
hori eta honezkero martxan da-  
goena. Badakigu, KRONIKAN  
kontu guzti honetako informazi-  
oa eman zela, baina egia esan,  
gazteek ez dute asko ulertu.

Merkatal Zentroaren proiektu-


tua jendeari ondo iruditzen zaio,  
baina kontu honi buruzko infor-  
mazioa ere eskatzen da.

Zubipe futbol-zelaiaren alda-  
keta ondo iruditu zaie futbolari  
eta futbolzale guztiei. Harritu  
gaituena zera izan da, kontu ho-  
netan herritar dexentek adierazi


digitela beren kexa: "Herriko  
obrak, denbora berean egiten  
ari dira denak".

Beste alde batetik pozik dau-  
de herriko gazteak Udalaren  
proiektuekin, eta ondo ikusten  
dute orokorrean Udalaren lana.  
Zorionak Udalari! □

## Udalaren proiektuei buruzko iritzia



### DISKO KOMENTARIOA



'Izan zaitez zu' diskoaren azala.

## 'Izan zaitez zu' Kauta taldeak ateratako lehen diskoa

Leire Muniain  
URUMEA IKASTOLA

KAUTA 2001 urtean sortu zen eta  
maketa bat grabatu zuten Euskadi  
Gazteko 13. maketa lehiaketan parte  
hartzeko. Euskadi Gazteko maketa  
lehiaketan entzuleen saria irabazi  
zuten.

Andoaindarrek jada beren disko  
berria kaleratu dute. Diskoa pop-rock  
estilokoa da eta beren abesti ezagu-  
na *Zaharrak berri* izenekoa da.  
*Zaharrak berri* abestia egunkariaren  
itxierari buruzkoa da. Beste abesti  
famatu batean, *Bizi* abestian, berriz  
gaur egungo bizitzari buruz hitz egi-  
ten dute. Talde honetan lau mutil  
daude Mikel Moreno (kitarra jolea eta  
ahotsa jarri du abestietan), Adrian  
Elustondo (bajua jotzen du), Xabi  
Maia (kitarra jotzen du) eta Gorka  
Mendizabal (bateria jotzen du).  
Entseguak Andoaingo baserri batean  
egiten dituzte (Adrianen baserrian).

Kautak jadanik kontzertu asko  
eman ditu baina oraindik ere kontzer-  
tu asko ditu emateko. Gipuzkoan  
azaroaren 20an emango dute kontzer-  
tua Billabonan. Kontzertua Marea,  
Hamlet, Las Niñas eta Eraso-rekin  
emango du besteak-beste. Bizkaian  
eta Araban ere emango ditu kontzer-  
tuak. Bizkaian Bilbon, Zamudion,  
Abadiñon eta Durangon emango ditu  
beste talde batzuekin batera. Araban  
berriz Laudion eta Gasteizen eman-  
go ditu, hemen ere beste talde ospe-  
tsu batzuekin.

Disko berria edozein diska den-  
detan dago dagoeneko *Izan zaitez zu*  
izenburuarekin. Euskadi Gazteko  
lehiaketa irabazi zutenetik diske-  
txekoak deika geratu gabe aritu  
zaizkie disko bat grabatzeko. Pop-  
rock musika zaleentzat disko pare-  
gabea da. Disko hau euskeraz egina  
dago dena eta euskal musika  
garatzeko aukera ona da. Beraz,  
badakizute zein euskal disko erosi  
behar dezuten. Disko polita da. □

## Gaztetxe bat Hernanin

Iñigo, Ander, Asier eta Cristian  
URUMEA IKASTOLA

JENDE gehiena gazteetaz kexatzen da kaleak zikindu eta soinu asko sortzen dutelako. Horretarako gazte talde batzuen izenean eskatzen dugu gaztetxe handi bat Hernanin egitea. Han lasai egoteko, jendeari ez molestatzeko eta euria egiten dunean ez bustitzeko. Kanean gazteak batzuetan aspertzen gara eta ez daukagu inora joaterik. Gaztetxea oso ideia ona izango dela uste dugu.

Zer egingo dugu gazteek euria egiten dunean?

Hau ez da eskakizun pertsonala, gazte gehienena baizik. Badakit eskakizun hau hamabost urteko gazteen eskaera dela eta agian ez duzuela ondo hartzen, baina gure ustez nahiko adin dugu guretzako zer den ona erabakitzeko.

Egun eguzkitsu batean planak euria bezala erortzen dira eta arazoak ditugu onena aukeratzeko, baina zer esaten duzue egun euritsu batean? Euria egiten dunean ez dago planik.

**Gazte Txokoa txiki**

Erantzun bat gazte txoko bat badagoela izan daiteke, eta erantzun zentzuduna da baina gazte

txokoak bi akats ditu:

1.-Oso txikia da.

2.-Hamasei urteko eta gorakoek ezin dute sartu.

Gure ustez, hau skate-parkaren antzeko gauza da, jende ugari zuen gustoko proiektua baina ez genekien zein egoeratan zegoen lehen izendatutakoa.

Hau komentario pertsola da, baina gure ustez Hernaniko gazteek ez dute begi txarrez ikusiko gaztetxe berriaren proiektua.

Gustatuko litzauguke guk egindako proposamenari erantzun bat behintzat ematea, eta KRONIKAN adierazita agertzea. Gogoratzeko da, hau proposamena bakarrik dela eta ez kritika. □

## Zooak. Etorkizuneko Noeren Arkak

Eider eta Maite  
URUMEA IKASTOLA

POLIKI-POLIKI, gizakia askotan berak eragindako animalia (eta landare) espezieen desageketa geldiarazi nahian dabil. Mendeetan zehar, ehiza, animalia trafikoa, basoen suntsiketa, etab. direla medio, milaka ugaztun, txori, narrasti eta anfibio desagertzeko zorian daude. Eta gatibu daudenen ugalketa eta hazkuntza dira zoritxarrez arriskuan dauden espezie hauen biziraupenerako aukera bakarra, dibertsitate genetikoa gorde nahi bada behintzat.

Espezie guzti horien desagereketa ebitatu nahi bada, azkar baino azkarrago jardun behar da. Ezin da debekuen eta erreserbaratze bidetik soilik jarraitu, hauek ere beharrezkoak izanagatik.

Dagoeneko espezieen eta beren habitat-aren manipulaziora pasatu da: txoriak zein saguzarrak habiaz hornitu, basurdeentzako ibilbide babestuek antolatatu, pilaka batrazio zanja ez daitezkeen ohargailuak jarri. Ondoren desagerturiko edo galtzear dauden espezieak berreskuratzera pasatu da.

Paradoxa batekin egiten dugu topo ordea; izan ere, egunen

batean aske bizi daitezten nahi bada, lehenengo gatibu daudela ugaltzen utzi behar zaie. Argi dago desagertze-zorian dauden populazio hauen babesak duen garrantzia, eta baita 2000 urteko Noeren Arka izango diren parke zoologikoei, zoritxarrez, egitea tokatzen zaien lan eskerga ere.

Munduko ia zoo guztiak jabetu dira horretaz eta hondamendiaren tamaina neurtu arte soluzioak bilatzeko azterketak egiten ari dira, tresna zientifikorik modernoak (populazioen genetikatik biologia molekularrerraino erabiliz).


Adituek diotenez ormodun lurtarretan 2000 inguru espezie desagertzeaz daude eta baita 160 primate, 100 haragijale, ehundaka anfibio eta ia mila txori ere. Gainera, ikerketa demografikoei giza biztanleriaren hazkuntza tasa mende bat barru zero izango dela aurrakusten dute eta hortik aurrera hasiko dela jaisten. Beraz, mendeak pasatuko dira oraindik, animalia basatiek beren ingurune naturala berriro hartu ahal izango duten arte. Zooek bada, mendeak (eta ez urteak) kontuan hartuz egin behar dute lan eta beren egoiliar ugarietara bizitza egokirako baldintzak eskaini beharko dizkiete. □

## Marihuana etxean nola landatu

Iñigo, Ander, Asier eta Cristian  
URUMEA IKASTOLA

MARIHUANA landaketa Martxoaren hasieran hasten da. Millaka hazi desberdin daude, eta landatzeko hoberenak Indikoak dira: Blue Berry, Himalayan Gold, Durvan Poison... Grow-shop-etan erosten dira, ongari eta Tnt-ekin (Kukulugailuekin). Haziak erein baino lehenago urez betetako edalontzi batean bota behar dira. Haziak urpetazen hasiko dira, eta sustraiak ateratzen hasten direnean lurperatu egin behar dira, eta ez sartu sustraiak goraka baizik beheraka.

Hazi honentzat, lurrik egokiena sustrato perladun txuriak dira. Gero zortzi edo hamar ordu eguzki behar ditu. Ureztatzeko plater bat urekin jarri behar da jarrontziaren azpian landareak behar dunean hartzeko. Astero inastu egin behar dira hosto txarrek ez estro-



**Marihuana loratan.**

peatzeko landarea.

Zazpi-zortzi hilabetez, ondo zaindu eta gero prest dago dena hartzeko. Hosto guztiak inastu egin behar dira kukulua bakarrik utzita. Gero kukuluak buruz bera

lehortu egin behar dira armairu eze batean kukulua ez estropeatzeko eta indar gehiago izateko. Gero hiru hilabetez sendatu behar dira. Horretarako hutsunean ontziratu egin behar dira hiru hilabetez. □

## Bitxikeriak

Eider eta Maite  
URUMEA IKASTOLA

### Gitarra Crafter klasika CE36

GAUR egun klase sozial guztietan eta mundu guztian gehien jotzen den instrumentua izango da gitarra. Instrumentu eroso, ikasten erraza, baina ondo jotzen oso zaila.

Argazkian ikusten duzuen gitarra horixe da munduko gitarra-rik garestiena, izan ere, 1.500 \$ balio ditu.

Gitarrak duen materiala: jakarandako forma klasikoa korte batekin, Spruce pinu trinkoaz eginiko tapa, urrebainua hartutako burua edo klabijeroa, paleta nakaratuak, Shadow mikrofona bost bandatako ekoalitzorearekin, bukaera lustre distiratsuan. □



**Crafter klasika CE 36.**

## Orriaren egileak



**Ezkerretik: Iñigo Gorrotxategi, Ander Egaña, Asier Egaña, Cristian Fernandez, Leire Muniain, Eider Martiarena eta Maite Gonzalez.**

**Hurrengo Ikasleen Txokoa:**  
Abenduaren 2an, osteguna  
Elizatzko ikastolaren eskutik